2019ko abuztuan erregistratutako langabezia

2019ko abuztuan zehar LANBIDEko bulegoetan %2,65 langabe gehiago erregistratu dira, langabe kopurua 116.078 da. 2010 urtez geroztik izandako abuztuko hiletako hazkunde handiena izan da. Krisi aurretik langabeziaren hazkundea nabarmenagoa izaten zen. Zenbat eta landun kopurua handiagoa izan, hainbat eta handiagoa izango da langabeziara igaroko den pertsona kopurua hil honetan, urtetik sasoi honetan oso ohikoa.

Langabetuen hilabeteko saldoaren bilakaera



Urte arteko eboluzioari dagokionez, 7.528 pertsonetan murrizten da langabezia, aurreko hilabetean baino 445 gutxiago, 2019 hasierako zifretara bueltatuz.

Erregistratutako langabetuen urte arteko saldoaren bilakaera



- **SEXUA**

Azken hilabetean langabezia gizonezkoen artean gehiago hazi da (% 4) emakumezkoen artean baino (% 1,66). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonen artean % 6,19 murriztu da, eta emakumeen artean, berriz, % 6,02 soilik. Gaur egun langabeen % 57,5 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekuperazio ahalmen handiago erakusten ari da.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia adin tarte guztietan hazi da. Hazkunde handiena 25-34 urte artekoen tartean izan da (% 5,57). 35-44 urte bitarteko multzoak jarraitzen dio (% 3,16ko

hazkundea). Urte arteko saldoan, jaitsiera handiena 35 eta 54 urte arteko tartean izan da (-% 10,27). 54 urtez gorakoen artean langabezia motel murrizten da, lan munduratzearen zailtasunak agerian utziz biztanleria helduaren artean. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharrenen artean.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Abuztuan zehar, industria sektoreak bidali du pertsona gehien langabeziara, bai kopuru absolutuetan (+2.334), bai erlatiboetan (+% 5,01). Eraikuntza sektorean langabezia % 3,61 hazi da, industrian % 0,27, eta lehen sektorean 11 langabe gehiago soilik zenbatzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 2,13 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz eraikuntza sektoreko murrizketa nabarmentzen da, % 12,06ko jaitsiera, baita lehen sektorekoa (% 9,22ko jaitsiera) ere.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia hazkundea handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: ETTko jarduerak (+562), hezkuntza (+451), merkataritza (+276), produktu metalikoen fabrikazioa (+218) eta janari eta edarien zerbitzuak (+199).

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 503 pertsonatan murriztu da eta epe laburrekoa 3.497 pertsonatan hazi. Urte osoari begiratuz gero, ikusten da jaitsiera handiagoa izan dela epe luzeko langabeen artean (% 11,97a, epe laburreko % 0,26 hazi da). Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Abuztuan langabezia hiru lurraldeetan hazi da: Araban %3,57 Gipuzkoan % 2,62 eta Bizkaian % 2,39.

Urte arteko saldoari erreparatuz Bizkaiak erregistratu du eboluzio onena % 6,89ko jaitsierarekin; Gipuzkoak jarraitzen dio % 6,55eko jaitsierarekin eta azkenik Araban % 2,50 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Gasteizen azken hilean 600 pertsonatan hazi da langabezia, Bilbon 346 pertsonatan eta Donostian 124 pertsonatan. Langabezia hazi diren eskualdeak Ezker Eskualdea (+403), Ibaizabal (+159), Durangaldea (+143) eta Gobela (+124) izan dira. Aldiz, Arabar Errioxan bakarrik murriztu da langabezia (-25).

Hil honetan erregistratutako langabezia handiena duten udalerriak honako hauek izan dira; Oion (% 18,65), Sestao (% 17,86), Balmaseda (% 16,19), Karrantza (% 15,69) eta Lantziego (% 15,20).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2019ko abuztuan 40.166 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 3.010 langabe gehiagok. Hazkunde hau laguntzarako eskubidea zuten hezkuntza edo merkataritza sektoretik langabeziara pasatako langileengatik izan da. Langabeen % 34,6k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 24.488 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 21,1 dira horiek. 15.678 langabek (% 13,51), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 37,8), Araban eta Bizkaian % 33,4koa eta % 33,5koa da, hurrenez hurren.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasa 1.75 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 4.40 hazi da.

2019ko abuztuan erregistratutako langabezia

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 59,4k (68.963 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 628 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan % 6,82 jaitsi da langabezia azken urtean. Azken urtean gehien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,8 dira. Talde horretan % 2,87 hazi da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 6,52.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 20.6583 dira, hau da, langabeen % 17,8. Talde hau abuztuan zehar % 5,06 hazi da, eta azken urtean % 2,88.

Azkenik, langabeen % 17,8k (20.658 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 5,06 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 2,88 murriztu azken urtean.

• JATORRIA

Langabeen % 14,9 (17.311 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, ikusten da langabezia % 0,19 hazi dela atzerritarren artean, eta % 3,09 hazi bertakoen artean.

Langabe atzerritarren % 33,6a Afrika iparraldekoak dira, % 20,9a Latinoamerikatik datoz, % 21,2 Europako Esparru Ekonomikotik, % 14,2a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,4, azkenik, Asiatik. Abuztuan Afrika iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-% 2,76).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 54.371 langabe gehiago daude aurreko hilean baino (% 1,81eko hazkundea). Guztira 3.065.804 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,65 hazi da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziaren hazkundea apalagoa izan da EAEn baino; Nafarroan (+% 0,26) eta Errioxan (+% 0,19), Kantabrian (+% 0,89) eta Gaztela eta Leonen konstante mantendu da. Katalunian % 3,51 hazi da eta Madrilen % 2,15 hazi da.

Urte arteko bilakaeran, langabezia gutxiago murriztu da Estatuan (-% 3,65) EAEren aldean (-% 6,09).

Lan-eskatzaile langabeak 2019ko abuztuan

	abu-2019	uzt-2019	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	49.357	47.455	1.902	4,01
EMAKUMEZKOAK	66.721	65.629	1.092	1,66
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	7.608	7.454	154	2,07
GIZONEZKOAK	3.838	3.831	7	0,18
EMAKUMEZKOAK	3.770	3.623	12	4,06
25-44 URTE:				
GUZTIRA	49.874	47.873	2.001	4,18
GIZONEZKOAK	20.202	18.953	1.249	6,59
EMAKUMEZKOAK	29.672	28.920	752	2,60
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	58.596	57.757	839	1,45
GIZONEZKOAK	25.317	24.671	646	2,62
EMAKUMEZKOAK	33.279	33.086	193	0,58
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.384	2.373	11	0,46
INDUSTRIA	13.735	13.080	655	5,01
ERAIKUNTZA	8.259	7.971	288	3,61
ZERBITZUAK	78.164	75.830	2.334	3,08
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.536	13.830	-294	-2,13
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.540	18.867	673	3,57
BIZKAIA	30.082	64.902	-34.820	-53,65
GIPUZKOA	66.456	29.315	37.141	126,70
EAE	116.078	113.084	2.994	2,65

	Langa-betuak	Erregistratu-tako langabe-zia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	3.918	10,6%	72	1,87	-43	-1,09
Oarsoaldea	3.501	9,8%	91	2,67	-221	-5,94
Donostia-S.Seb.	7.284	8,3%	124	1,73	-588	-7,47
Donost.Mendebaldea	3.004	8,4%	70	2,39	-241	-7,43
Tolosaldea	1.948	8,4%	36	1,88	-230	-10,56
Urola Erdia	1.179	7,9%	37	3,24	-137	-10,41
Goiherri	1.645	7,9%	67	4,25	-94	-5,41
Deba Garaia	2.402	8,0%	105	4,57	-167	-6,50
Deba Behera	2.720	10,4%	67	2,53	-229	-7,77
Urola Garaia	1.075	9,0%	48	4,67	-57	-5,04
Urola Kosta	1.406	6,4%	50	3,69	-100	-6,64
GIPUZKOA	30.082	8,7%	767	2,62	-2.107	-6,55
Vitoria-Gasteiz	15.351	12,5%	600	4,07	-359	-2,29
Aialako Ibarra	2.237	11,9%	32	1,45	-89	-3,83
Arabar Errioxa	655	12,4%	-25	-3,68	-30	-4,38
Arabako lautada	673	9,2%	31	4,83	-21	-3,03
Gorbeia inguruak	296	6,4%	21	7,64	15	5,34
Arabako Ibarrak	356	7,3%	12	3,49	-22	-5,82
Arabako Mendialdea	103	6,9%	3	3,00	-21	-16,94
ARABA	19.540	11,9%	673	3,57	-501	-2,50
Gobela	4.892	9,4%	128	2,69	-343	-6,55
Txorierri	2.238	9,8%	86	4,00	-180	-7,44
Uribealdea	2.901	8,9%	17	0,59	-135	-4,45
Durangaldea	3.282	8,8%	143	4,56	-56	-1,68
Busturialdea	2.115	9,8%	85	4,19	-100	-4,51
Lea-Artibai	958	8,0%	25	2,68	-8	-0,83
Enkarterriak	2.087	13,4%	30	1,46	-170	-7,53
Arratia-Zornotza	1.517	8,8%	111	7,89	-84	-5,25
Arratia-Nerbioi	1.279	9,8%	19	1,51	-135	-9,55
Bilbo	23.040	13,8%	346	1,52	-1.960	-7,84
Ezkerraldea	17.433	14,0%	403	2,37	-1.376	-7,32
Ibaizabal	4.580	11,4%	159	3,60	-347	-7,04
BIZKAIA	66.456	11,9%	1.554	2,39	-4.920	-6,89
EAE	116.078	10,9%	2.993	2,65	-7.528	-6,09

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.